

<b>LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK 2020KO UZTAILAREN 23AN EGINDAKO BILKURAREN AKTA</b>	<b>ACTA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE TERRITORIO CELEBRADA EL DÍA VEINTITRES DE JULIO DE 2020</b>
<b>BILDUTAKOAK:</b>	<b>SEÑORES ASISTENTES:</b>
<b>PRESIDENTEA:</b>	<b>PRESIDENTE:</b>

JANIRE OCIO CELADA andrea

<b>BATZARKIDEAK:</b>	<b>V O C A L E S:</b>
----------------------	-----------------------

JOSEBA ARREGI MARTÍNEZ jauna  
ALVARO GONZÁLEZ PÉREZ jauna  
INAZIO URIARTE GOROSTIAGA jauna  
IRANTZU URIARTE GÓMEZ andrea  
IÑIGO URKITZA YAÑEZ jauna  
EDUARDO ANDRADE AURRECOECHEA jauna  
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA andrea  
NEREA GUIJARRUBIA GARCIA andrea  
ITXASO MASEDA SARATXO andrea  
GONZALO AYO JIMENÉZ jauna  
PAULA AMIEVA CLEMENTE andrea

<b>IDAZKARIA:</b>	<b>SECRETARIA:</b>
-------------------	--------------------

ISABEL PERAL AGUIRREGOITIA andrea

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura  
Aretoan, 2020ko uztailearen 23an.

En el Salón de Plenos del  
Ayuntamiento de Getxo, a veintitres  
de Julio de 2020.

Egun horretako 9:30etan, Lurraldeko  
Informazio Batzordea elkartu zen;  
idazpuruan zerrendatutako pertsonak  
bertaratu ziren, aurretik egindako  
deialdiko gai-zerrendan jasotako gaietara  
buruz hitz egiteko.

Se reunió, a las nueve horas y treinta  
minutos de este día, la Comisión  
Informativa de Territorio, con  
asistencia de las personas  
relacionadas al encabezamiento, para  
tratar los asuntos incluidos en el  
Orden del Día de la previa  
convocatoria.

Bileraren emaitza honako hau izan  
zen:

Este fue el resultado:

**1.- 2020.06.18AN EGINDAKO  
BILERAREN AKTA ONESTEA**

Aldaketarik gabe onartu zen 2020.06.18ko bilkurari dagokion akta.

**2.- ARLOKO HAINBAT GAIRI  
BURUZKO INFORMAZIO  
OROKORRA.**

Puntu honetan Plangintza, Kudeaketa eta Hirigintza Diziplina eta Udal Eraikinen arloko zinegotzi arduradun Iñigo Urkitzak hartu du hitza, Puerto Zaharreko Etxetxuren egoerari buruzko azken albisteen berri emateko. Hala, jabetzarekin, lehenik, higiezinaren segurtasunari, egituraren jardunez, kasu egiteko izandako harremanak azaldu ditu. Ondoren, lizentzia eman zitzaion proiektuko obrei helduko litzateke. Proiektu horren arabera, ataripea zabalik geratuko litzateke. Eremuaren perimetroan babesteko hesiak jarri dira.

Nerea Guijarrubia zinegotzia kezkatuta agertu da, obrak hasi arteko epean eremu horretatik ibiltzeko segurtasunagatik, eta horri buruz Iñigo Urkitzak esan du behar diren neurriak hartuko direla obrak azkar gauzatuko direla, zein behar diren babes-neurriak hartzen direla ziurtatzeko.

Eduardo Andradek jakin nahi du obren lizentziari eusteko proiektuak behar den Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren baimena lortu zuen, eta erantzun zaio 2018-04-09ko 56.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE,  
DEL ACTA CORRESPONDIENTE A  
LA SESIÓN CELEBRADA EL  
18.06.2020.**

Fue aprobada sin modificaciones el acta correspondiente a la sesión de 18.06.2020.

**2.- INFORMACIÓN GENERAL  
ACERCA DE DISTINTOS  
ASUNTOS DEL ÁREA.**

Interviene en este apartado el Concejal Responsable del Area de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanísticas y Edificios Municipales, Iñigo Urkitza, para dar cuenta de las últimas novedades en relación con la situación del Etxetxu en el Puerto Viejo. Así, explica los contactos habidos con la propiedad para que sea atendida, en primer lugar, la seguridad del inmueble, actuando en la estructura. Después, se abordarían las obras del proyecto que fue objeto de licencia, conforme al cual el soportal quedaba abierto. La zona ha quedado perimetrada con un vallado de protección.

La Concejala, Nerea Guijarrubia, muestra su preocupación por la seguridad para transitar por la zona en el periodo de tiempo que media hasta el inicio de las obras, señalando al respecto Iñigo Urkitza que se tomarán las medidas oportunas para asegurar tanto la prontitud en la ejecución de las obras, como las necesarias medidas de protección.

Eduardo Andrade quiere saber si el proyecto soporte de la licencia de obras obtuvo la oportuna autorización del Departamento de Cultura de la

Ebazpena dagoela, baimena ematekoa.

Paula Amieva ere kezkatuta dago eremuko segurtasunagatik eta plaza eremuan eta ostalaritzan duen eraginagatik. Iñigo Urkitzak azaldu du jabetza erantzuten ari dela eta azpimarratu zaiela segurtasun-neurriak hartu behar dituztela. Ahalegina egingo da plazari ahalik eta eraginik txikiena izateko ostalaritzari ahalik eta gutxien eragiteko.

### **3.- GALDERAK ETA ESKAERAK**

Popular Udal Taldearen 17.430/2020 idazkia; beraren bidez, Konpostaje-planten eraikuntzari buruz galdetu dute.

Ingurumeneko Hiri Zerbitzuen eta Ingurumen Kalitatearen zinegotzi arduradun Joseba Arregik azaldu du Getxon eraikitzeko eskatu dela, Hondakinen Lantaldearen proposamenen eta haietatik datozen hitzarmen politiko ondoz, eta ebazpenaren zain daudela. Ebazpena ematen bada, erakunde bien artean izapidetu beharko da dagokien espedienteen bidez.

Popular Udal Taldearen 17.436/2020 idazkia; beraren bidez, Zientoetxe kaleko biribilgune berriari buruz ingurune-txostena dagoen galdetu dute.

Azpiegitura, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen arloko zinegotzi

Diputación Foral de Bizkaia, indicándosele que media Resolución nº 56, de fecha 09.04.2018, por la que se emite la autorización.

Paula Amieva también está preocupada por la seguridad de la zona y la incidencia sobre el espacio de plaza y la hostelería. Iñigo Urkitza explica que la propiedad está respondiendo y se les ha insistido en la necesidad de adoptar medidas de seguridad. Se procurará que la afección sobre la plaza sea la menor posible para incidir lo mínimo en la hostelería.

### **3.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Escrito nº 17.430/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por la construcción de plantas de compostaje.

El Concejal Responsable de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental, Joseba Arregi, explica que se ha solicitado su construcción en Getxo, consecuencia de las propuestas del Grupo de Trabajo de Residuos y de los acuerdos políticos derivados de las mismas, y que se está a la espera de la resolución que que, en su caso, deberá ser tramitada mediante los correspondientes expedientes entre las dos instituciones.

Escrito nº 17.436/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por la existencia de un informe medioambiental sobre la rotonda de la calle Zientoetxe.

Janire Ocio, como Concejal Responsable del Área de

arduradun Janire Ociok, ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean bermatuta, baztertu du ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik behar denik.

Eduardo Andradek galdetu du Udal Ingurumen Saila obra egitearen aurka ager daitekeen, eta Janire Ociok esan du ez dagoela txostenik ildo horretatik.

Nerea Gujarrubiak bere hausnarketak egin nahi ditu gaiari buruz, eta esan du gertatzen den auto pilaketari egin behar zaiola kasu, zeina larriagotu baita azken urteotan, Fangalokaren jarduera dela-eta.

Janire Ociok bereizi ditu biribilgunearen premia eta alde horretan pila daitezkeen autoen kopurua, eta autobusek buelta emateko maniobra egiteko dauzkaten zailtasunei lotu du.

Paula Amievaren iritziz, goiko egoera arautu behar litzateke, han pilatzen baita hainbeste ibilgailu.

Alvaro Gonzálezek denboran ezarri eta kendu diren neurriak gogoratu ditu, interes guztiak asetzeko zailtasunarekin.

Eduardo Andradek iradoki du autobusentzako irtenbidea eremu babestu batekin bat ez datorren beste puntu batetik eman zitekeela, eta Janire Ociok esan du udal titulartasuneko lursailekin zetorrela

Infraestructuras, Obras y Servicios y Medio Ambiente, y con apoyo en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, descarta la necesidad de la evaluación de impacto ambiental.

Eduardo Andrade pregunta por una posible oposición del Departamento de Medio Ambiente Municipal a la ejecución de la obra, indicando Janire Ocio que no existe informe alguno en ese sentido.

Nerea Gujarrubia quiere aportar sus reflexiones en relación con este asunto y apunta la necesidad de atender la acumulación de coches que se produce, agravada los últimos años por la existencia de la actividad del Fangaloka.

Janire Ocio desvincula la necesidad de la rotonda del número de coches que pueda concentrarse en esa zona y la relaciona con las dificultades de maniobra para los autobuses para dar la vuelta.

Paula Amieva opina que debería regularse la situación de la parte de arriba, donde se produce tanta concentración de vehículos.

Alvaro González recuerda las distintas medidas que se han venido implantando y retirando en el tiempo, con la dificultad de dar satisfacción a todos los intereses.

Eduardo Andrade sugiere que la solución a los autobuses podría haberse dado por otro punto que no coincidiera con una zona protegida, señalando Janire Ocio que la coincidencia lo era con terrenos de

bat. Horretarako, Nerea Guijarrubiak esan du desjabetzearen tresna dagoela.

EH Bildu Taldearen 17.629/2020 idazkia, beraren bidez, Ibarbengoako metro geltokiari buruz galdetu dute.

Janire Ociok esan du eskatutako datuak ez dagozkiola Udal honi eta CTBren webean eskura daitezkeela.

EH Bildu Taldearen 17.633/2020 idazkia, beraren bidez, Algortako gasolindegia buruz galdetu dute.

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradun Alvaro Gonzálezek azaldu du REPSOLEk baimena eskatu duela lagin batzuk egiteko, Eusko Jaurlaritzari aurkeztu behar dizkioten laginak hartzeko.

Hori aurkeztutakoan, Eusko Jaurlaritzak erabaki behar du nork kendu behar duen kutsadura, zein den kutsadura maila eta zein gauzatzeko epeak.

Erabakia ezagututakoan, Udalak haren arabera jokatu du.

EH Bildu Taldearen 17.636/2020 idazkia, beraren bidez, panel-seinalei buruz galdetu dute.

Janire Ociok haiek muntatzeko egon diren zailtasunak zaldu ditu; espero da abuztuko lehen asterako konpondua egotea.

titularidad municipal. A estos efectos, Nerea Guijarrubia señala que existe el instrumento de la expropiación.

Escrito nº 17.629/2020 de EH Bildu, preguntando por la parada de metro de Ibarbengo.

Janire Ocio señala que los datos que se solicitan son ajenos a este Ayuntamiento y que se encuentran disponibles en la Web de CTB.

Escrito nº 17.633/2020 de EH Bildu, preguntando por la gasolinera de Algorta.

Alvaro González, como Concejal Responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, explica que REPSOL ha solicitado autorización para la práctica de unas catas para la toma de las muestras que deben presentar ante el Gobierno Vasco.

A partir de dicha presentación, el Gobierno Vasco ha de decidir acerca de quién tiene que descontaminar, cuál es el nivel de contaminación y cuáles los plazos de ejecución.

Conocida tal decisión, el Ayuntamiento actuará en consecuencia.

Escrito nº 17.636/2020 de EH Bildu, preguntando por los paneles informativos.

Janire Ocio explica las dificultades habidas para su montaje, que se espera queden resueltas para la primera semana de Agosto.

EH Bildu Taldearen 17.638/2020 idazkia, beraren bidez, Udaleko Brigaden lanei buruz galdetu dute.

Iñigo Urkitzak erantzun du brigadari "Udal Eraikin"ei lotuta dagozkion lanei buruz. Hala, azaldu du Idazkaritzak brigadaren laguntza eskatu ohi duela lan jakinetarako, baina egoera berezietan gerta daitekeela nahikoa ez izatea.

Nerea Guijarrubiak jakin nahi du zer lan kontratatu diren kanpoan brigada ez zelako arduratu.

Popular Udal Taldearen 18.463/2020 idazkia; beraren bidez, ispilu bat Urkijo kalean El Pinar kalearen izkinan eskatu dute.

Janire Ociok esan du printzipioz uste dela ikuspena ona dela eta ez dela eskatutako ispilua behar.

Popular Udal Taldearen 18.464/2020 idazkia; beraren bidez, Andikoetxe kalean ispilua berriro jartzeko eskatu dute.

Janire Ociok esan du berriri jarri dela beste puntu batean mugitzen ez dela ziurtatzeko.

EH Bildu Taldearen 18.559/2020 idazkia, beraren bidez, Etxetxuri buruz galdetu dute.

Nerea Guijarrubiak erantzuntzat jo du gaia, baina ez nahi zukeen bezala, eta bere taldeak joan den hileko osoko bilkuran aurkeztu zuen mozioa gogoratu du, Portu Zaharreko

Escrito nº 17.638/2020 de EH Bildu, preguntando por las tareas de las Brigadas municipales.

Contesta Iñigo Urkitza en la parte que puede corresponder a la brigada vinculada a "Edificios Municipales". Así, explica que desde Secretaria se suele solicitar el apoyo puntual de la brigada, aunque en situaciones especiales puede no resultar suficiente.

Nerea Guijarrubia quiere conocer los trabajos que se han contratado fuera por no haber podido ser atendidos por la brigada.

Escrito nº 18.463/2020 del Grupo Municipal Popular solicitando un espejo en la calle Urkijo con El Pinar.

Janire Ocio señala que en principio se considera que la visibilidad es buena y no hace falta el espejo solicitado.

Escrito nº 18.464/2020 del Grupo Municipal Popular solicitando poner de nuevo el espejo en la calle Andikoetxe.

Janire Ocio indica que ha sido recolocado pero en otro punto para asegurar que no sea movido.

Escrito nº 18.559/2020 de EH Bildu, preguntando por el Etxetxu.

Nerea Guijarrubia da por contestada esta cuestión, aunque no en los términos que hubiera deseado, y recuerda la moción que presentó su grupo en el Pleno del mes pasado, sobre protección del edificio "Etxetxu"

“Etxetxu” eraikina babesteari buruzkoa, ezetsi egin zena.

EH Bildu Taldearen 18.620/2020 idazkia, beraren bidez, Patinete elektrikoan zerbitzuari buruz galdetu dute.

Joseba Arregik, Ingurumeneko Hiri Zerbitzuen eta Ingurumen Kalitatearen zinegotzi arduraduna den aldetik, enpresa pribatu batek eskatuta egin zen lehen proba aipatu du. Haren funtsezko helburua kostaldeko ardatza zen, lotura handiagoa zuena aisiarekin eta Areta Gobela eta Fadurako kirol-ekipamenduei lotzearekin.

Bigarren proba ere enpresa pribatu beraren ekimenez baimendu da, eta mugikortasunari heltzen zaio, ikuspegi orokorrago batetik, Berango eta Sopelako proban parte hartzen duten udalerriekiko mugimenduei lotuta bera ere.

Proba horiei esker, mugikortasunaren arloan oso erabilgarriak izan daitezkeen datu batzuk lortuko dira.

Karteletan eta gainerakoetan euskararik ez egiteari lotutako kexari dagokionez, Joseba Arregik esan du APPa hasieratik dagoela euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez; berriro eskatuko diegula aurrera egin dezatela euren weba eta beste elementu batzuk euskaraz jartzen; zailtasunak ikusten ditu arlo horretan derrigortzeko eta eremu publikoa erabiltzeagatik kobratzeko aukerari buruz ere, zailtasunak ikusten ditu, ibilgailu horiek eremu publikoa erabil

del Puerto Viejo, que resultó rechazada.

Escrito nº 18.620/2020 de EH Bildu, preguntando por el servicio de patinetes eléctricos.

Se refiere Joseba Arregi, como Concejal Responsable de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental, a la primera prueba que se hizo, a instancia de una empresa particular y que tenía como objetivo fundamental el eje costero, más vinculado al ocio y a la conexión de Las Arenas con los equipamientos deportivos de Gobela y Fadura.

En la segunda prueba autorizada, también debida a la iniciativa de la misma empresa particular, se aborda la movilidad desde una perspectiva más general y vinculada también a movimientos con los municipios participantes en la prueba de Berango y Sopela.

Todas estas pruebas van a permitir contar con una serie de datos que pueden resultar muy útiles en materia de movilidad.

En relación con la queja relativa a la ausencia del Euskera en los carteles y demás, Joseba Arregi indica que la APP esta desde el principio en euskera, castellano, inglés y francés; que insistiremos en que avancen poniendo su web y otros elementos en euskera; ve dificultades para obligarles en esta materia y acerca de la posibilidad de que se cobre por la utilización del espacio público, también aprecia dificultades, porque estos vehículos pueden utilizar el

dezaketelako horretarako homologatuta dauden gainerakoen baldintza berdinetan ibili eta aparkatzeko.

EH Bildu Taldearen 18.622/2020 idazkia, beraren bidez, Nagusien Etxearen aurreko aparkalekuko marka berriei buruz galdetu dute.

Janire Ociok azaldu du jarduketak Udaltzaingoaren iradokizun bati erantzun diola. Itxaso Masedak uste du Nagusien Etxeari jakinarazi behar zitzaioela.

Elkarrekin-Podemos Taldearen telemakikoki 3.460/2020 zenbakiarekin errejistratutako idazkia; beraren bidez, Errotatxu Poligonoa, AndraMari biribilgunea, Aiboa metrotik igogailura doazen pasealekutik paperontziak, Tanatorio, Algortako gasolindegia eta patinete elektrikoari buruz galdetu dute. (EE 18.655/2020)

Errotatxu poligonoko urbanizatzeko obrei dagokionez, Iñigo Urkitza hirigintza-erakundearekin egoera desblokeatu eta irtenbide bat emateko izandako kontaktuez mintzatu da.

Biribilguneari dagokionez, gaia jorratutzat jotzen da.

Ibarbengoako aparkalekuari dagokionez, Paula Amievak uste du datu horiek bildu behar lituzkeela Udalak, interesgarriak izan daitezkeelako. Janire Ociok ez du uste datu horietatik emaitzak ateratzeko unea denik, epe hain laburrekin eta bizi dugun egoera hain berezian.

espacio público para circular y aparcar en las mismas condiciones que el resto que están homologados para ello.

Escrito nº 18.622/2020 de EH Bildu, preguntando por las nuevas marcas de aparcamiento frente al Nagusien Etxea.

Janire Ocio explica que la actuación responde a una sugerencia de la Policía Local. Itxaso Maseda entiende que debería haberse avisado a la Nagusien Etxea.

Escrito con nº de registro telemático 3.460/2020, de Elkarrekin-Podemos, preguntando por el Polígono Errotatxu, la rotonda de AndraMari, las papeleras que van desde el metro Aiboa al ascensor, el Tanario de La Arenas, la gasolinera de Algorta y los patinetes eléctricos (RE 18.655/2020).

Sobre las obras de urbanización en el Polígono Errotatxu, Iñigo Urkitza se refiere a los contactos habidos con la Entidad Urbanística para desbloquear la situación y darle solución.

Sobre la rotonda, se da por tratado el asunto.

Sobre el Parking de Ibarbengoia, Paula Amieva considera que el Ayuntamiento debería recabar esos datos porque pueden resultar de interés. Janire Ocio no cree que sea el momento de obtener resultados de tales datos, con un periodo de tiempo



Paperontziei dagokienez, Joseba Arregik aitortu du zerbitzuan egun batzuetako bat ez etortze bat dagoela, uda sasoiarekin eta sasoi horretako plantilla aldaketarekin bat datorrena, eta zuzendu egin dela.

Areetako tanatorioari dagokionez, auzokide hurbilenekin izandako bilerak aipatu ditu Iñigo Urkitzak, eta esan du obra amaierako agiriak aurkezteko eskatu diotela Funespaña, SAri.

Gasolindegia dagokionez, Alvaro Gonzálezek errepikatu du Repsol laginak egiten ari dela Eusko Jaurlaritzak galdegindako datuak lortzeko.

Paula Amievaren iritziz denbora gehiegi igaro da Eusko Jaurlaritzak bere ebazpena emateko.

Patinete elektrikoiei dagokienez, Paula Amievak jakin nahi du, egindako lehen probaren ondorioz, Udalak kasu egingo dion demanda batez hitz egin daitekeen. Joseba Arregi ikuspegi orokorrago batetik mintzatu da, pertsonen mugikortasunaren ikuspuntutik. Gai konplexua da eta zenbait neurri hartu beharko dira.

Bilera amaitu aurretik, gai bi sortu dira:

.- Eduardo Andradek eskatu du, bilera-deialdiarekin batera, talde bakoitzak aurkeztutako idazkien kopia bana bidaltzeko eskatu du.

tan corto y en una situación tan especial como la que vivimos.

Sobre las papeleras, Joseba Arregi reconoce un desajuste de unos días en el servicio, coincidiendo con la época estival y el cambio de plantilla en este periodo, que ya ha sido corregido.

Sobre el Tanatorio de Las Arenas, se refiere Iñigo Urkitza a las distintas reuniones con los vecinos inmediatos y señala que se ha solicitado a Funespaña, S. A. la presentación de la documentación fin de obra.

Sobre la gasolinera, Alvaro González reitera que Repsol se encuentra realizando las catas para la obtención de los datos reclamados por el Gobierno Vasco.

Paula Amieva juzga excesivo el tiempo transcurrido para el pronunciamiento del Gobierno Vasco.

Sobre los patinetes eléctricos, Paula Amieva quiere saber si, como resultado de la primera de las pruebas habidas, puede hablarse de una demanda que vaya a ser atendida desde el Ayuntamiento. Joseba Arregi habla desde una perspectiva más general, en términos de movilidad personal, como tema complejo en el que se tendrán que abordar distintas medidas.

Antes de que termine la reunión, surgen dos cuestiones:

.- Eduardo Andrade solicita que, junto con la convocatoria de reunión, se remita copia de los escritos presentados por los distintos grupos.

.- Paula Amievak esan du arazo bat dagoela Las Mercedes kaleko 36 zenbakian dagoen higiezinaren egituren eta beldur da segurtasun publikoa arriskuan jar dezakeen.

Beste gairik ez dagoenez, lehendakariak bilera 10:52an bukatutzat eman du.

.- Paula Amieva comenta que existe un problema en la estructura del inmueble sito en el nº 36 de la calle Las Mercedes y teme que pueda comprometer la seguridad pública.

Sin más asuntos que tratar y siendo las 10:52 horas, la Presidenta da por finalizada la sesión.